



AKTIBLAITU



Hizkuntza Portaeren inguruko lehiaketa


5. Asteko galderen erantzunak

1.- Zer dira gaztelaniarako konbergentzia geruzak?

- a) Beharrik gabe eta inork eskatu gabe hizkuntza aldatzeko joera dugun egoerak. Oharkabean egiten duguna eta sarritan automatismo bat dena.
- b) Konbergentziako katalanek gaztelaniaz egiteko duten ohitura.
- c) Euskarari eusten diotenek, beren jarrera defendatzeko jartzen duten kapa.

Erabileraren semaforoa. Erantzuna osatzeko azalpena: Gaztelaniara aldatzen dugun egoerak azter ditzakegu, tipula baten kapak izango balira bezala; **behekoak, elkarreagin gutxiko egoerei dagokie** (eta, beraz, hizkuntza aldatzeko mintzakidearen eskaera urri eta batere gabe); **goikoak, aldiz, mintzakidearen partetik eskaera zehatzagoa** (edo ez) dutenei dagokie.

Erabileraren semaforoa



2.- Lotu hizkuntzak eta adjetiboak:

	Euskara	Gaztelania
Atzerapena	X	
Aurrerapena		X
Baserri girokoa	X	
Ezjakintasuna	X	
Freskotasuna		X
Hiritarra		X
Kultua		X
Modernitatea		X
Zakarra	X	
Zatarra	X	

Erantzuna: Urte askoan leku berean jota harkaitzik gogorrena nola zulatzen duen ur tanta batek, halaxe sartu dizkigute euskaldunoi aurreiritzi ugari. Eguneroko bizitzan agian oso agerian ez daudenak baina zuri-ala-beltz kinkan jartzen gaituztenean betiko horietan erortzen garenak: gurea den mintzaira, etxekoa, gutxietsiz eta kanpokoa ederretsiz, alegia. Orain alderantzizko bidea egitea dagokigu: urteetan ikasitakoa desikastea eta sinestea geure hizkuntza ere badela beste edozein adinakoa elkarbizitza sano bat ehuntzeko.

Euskara = Ezjakintasuna = Baserri giroa = Atzerapena = Zakarra = Zatarra...

Gaztelania = Kultura = Hiritarra = Aurrerapena = Modernitatea = Freskotasuna...

Eskerrik asko parte hartzeagatik eta zorte on!